

UNESCOREN ESKOLA ELKARTUEN MANIFESTUA



Geure buruari galdetzen diogu: nola da posible gerra berri bat piztea Europan, bere lurraldean bi mundu-gerra jasan ondoren? Zergatik egin behar diogu aurre, berriz ere, bizikidetzaren porrotari? Ez dago ezer justifikatzen duenik Ukrainako herriak Errusiaren inbasioak eta erasoak eragindako sufrimendua, nazioarteko zuzenbidea, elkarbizitza baketsua eta elkarrizketa urratzen dituen ekintza. Gure Saretik Bakearen Kultura eta nazioarteko lankidetzak sustatzen eta lantzen ditugu, eta hori, beste behin ere, eta Yemen, Palestina, Sahara, Siria, Irak, Libia eta antzeko gerra ikusezinak ahaztu gabe, arriskuan eta mehatxupearan dago gizateria osoarentzat. Zentzugabekeriaren eta gerraren hotsak zuzenean sufritzen duten pertsonen aieneak gortzen ditu, eta, beti bezala, denok galtzen dugu; izan ere, gerrak gutxi batzuen interesen alde egiten dira, baina hildakoak, zaurituak, errefuxiatuak herriek jartzen ditugu.

Gerrak zuzenean mehatxatzen du nesken eta mutilen hezkuntzarako eskubidea, Covid-19aren pandemiak gogor kaltetutako gazteena, agerian utzi baitzuen herrialde bakoitzaren eta herrialdeen arteko desberdintasuna. EZ DUGU INOIZ AHAZTU BEHAR HEZKUNTZA ESKUBIDE UNIBERTSALA DELA ETA EZAGUTZARAKO SARBIDEA PUBLIKOA IZAN BEHAR DELA. Hezkuntza da etorkizun ekitatibo, justu, aske, iraunkor eta baketsua bermatzen digun tresna.

Horregatik, Eskola Elkartuen Sareak GERRARIK EZ delakoarekin bat egin nahi du, eta Nazio Batuei eta herrialdeei eskatzen die indarkeria hori geldiarazteko, elkarrizketa-mahaiak irekitzeko, Ukrainako herriaren bizitzak eta ondasunak zaintzeko. Gerra honek amaitu egin behar du, igarotzen den egunetik egunera biktima gehiago, min gehiago, deserrotze gehiago, errefuxiatu gehiago eta gizateria osoa arriskuan jartzen du.

Gerra zuzen edo bidegabekeri ez dagoelako, soilik GERRA TRISTEAK.

Izan ere, elkartasuna, lankidetzak, enpatia eta bakea izan behar dira gure etorkizun komunaren tresnak.

Haurrek, leku guztietan, eskubide bortxaezina dutelako babestuak izateko, beren eskoletara joateko, beren senide eta lagunekin egoteko, bonbardaketan izupean ez bizitzeko, aske, zorientsu eta seguru hazteko beharrezkoak diren ongizateak eta bakeak gozatzeko.

Inor ez da gorrotoz jaiotzen, gorrotatzen ikasten da. Nelson Mandela.